



XIX. “MANUEL LABORDE WERLINDEN” SARIA

“EKIMEN BERRITZAILE BERRIAK”

OINARRIAK



XVIII . "MANUEL LABORDE WERLINDEN" SARIAREN OINARRIAK

EHUko Gipuzkoako Campusak eta Enpresen eta Berrikuntzaren zentru europarra den BIC GIPUZKOA BERRILANek "MANUEL LABORDE" sariaren hamaseigarren edizioa ateratzen dute, bien artean garatu eta kudeaturiko **ENTREPRENARI Programaren** helburua UPV/EHUko Gipuzkoako Campusean enpresa ekimenak eta enpresa berrien sorkuntza sustatzea, aholkatzea eta sostengatzea baita.

Sariaren erakunde laguntzaileak honako hauek dira: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua, S.P.R.I., Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo saila, DIARIO VASCO, UPV/EHUko Gipuzkoako Campusa, eta BIC GIPUZKOA BERRILAN.

Sari honek sustatu eta bultzatu nahi dituen baloreak **enpresa ekimena eta berrikuntza** dira, **berrikuntza zientifiko-teknologikoa eta ezagutza** bereziki azpimarratuz.

ENTREPRENARI Programaren filosofiari jarraituz, sormena eta berrikuntza zientifiko-teknologikoa eta ezagutza dakartzaten ekintzak dira bermatu nahi direnak, Euskal Herriko industri ehunaren modernizazioa bultzatuz, berrikuntzaren kultura hedatuz. Labur esanda, Unibertsitate ingurunetik abiatuta errealitatean isla daitezkeen asmo guztiei ateak zabaltzea, enpresa izan litezkeen "asmo" guztiei bideak irekitzea da sariaren helburua.

Honako proiektu hauek hartuko dira berrizaitzat:

- ✓ Oinarri zientifiko-teknologikoa duten enpresa berriak.
- ✓ Ezagutza espezifikoa oinarrituriko enpresak, berriak diren sektoreetara zuzenduak.



HELBURUAK

- 1.- Unibertsitatearen igurunean ekintzailtza arloko ideiak eta proiektuak sustatu.
- 2.- Unibertsitatearen potencial berritzailea bultzatu, enpresa-ekimen berriak sortuz eta garatuz.
- 3.- Ekimen berrien garapenean lagundu, baliabide ekonomikoak eta enpresak sortzeko eta kudeatzeko aholkularitza-serbitzu adituak jarri.

NORI ZUZENDUA DOA

- ▶ UPV/EHUko ikertzaileak, irakasleak eta/edo ikastetxe laguntzaileak.
- ▶ Euskal Herriko Unibertsitatean matrikulatutakoak edo haren titulu ofizial bat dutenak (lizentziatura, diplomatura, gradua, ingeniari, arkitektura eta masterra)
- ▶ UPV/EHUrekin edo ikastetxe laguntzaile batzuekin elkarlanean egindako ikerketa baten emaitzak ustiatzea erabakitzen duten enpresak.

Gipuzkoako lurralde historikoan enpresa-proiektuak garatzeko eta abian jartzeko asmoz.

SARIAK

Lehen saria:

- ▶ **7.000 euro** esku-dirutan.
- ▶ **60.000¹ euro** arteko laguntza jaso dezakete, Proiektu berritzaileak eta oinarri zientifiko-teknologikoa dutenak, euren egitasmoa babesteko eta abian jartzeko BIC GIPUZKOA BERRILANek kudeatzen dituen laguntzetatik. Laguntza hauek Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia

¹ Egitasmo berritzaileak eta Oinarri Zientifiko-Teknologikoa duten proiektuek, bere egitasmoa babesteko eta abian jartzeko TXEKINTEK/EKINTZAILE programak kudeatzen dituen eta 60.000 euroko kopurura iritsi daitezkeen laguntzak jaso ditzakete. Informazio gehiago: www.gipuzkoa.eus eta www.spri.net



Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua eta SPRIK TXEKINTEK/EKINTZAILE edo BARNETEKIN programen bidez antolatzen dituzte.

- ▶ "Joxe Mari Korta" Zentroan espazio bat esleitu bazaizu, ez duzu han egoteagatik tarifarik ordaindu beharko lehenengo urtean.

Bigarren saria:

- ▶ **3.000 euro** esku-dirutan.
- ▶ **60.000 euro** arteko laguntza jaso dezakete, Proiektu berritzaileak eta oinarri zientifiko-teknologikoa dutenak, euren egitasmoa babesteko eta abian jartzeko BIC GIPUZKOA BERRILANek kudeatzen dituen laguntzetatik. Laguntza hauek Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua eta SPRIK TXEKINTEK/EKINTZAILE edo BARNETEKIN programen bidez antolatzen dituzte.

Bi sariak honakoa edukiko dute:

- ▶ Hedabideen bidez zabaltzea: web-orrietan (EHUrean eta BIC GIPUZKOA BERRILANen), Campusa unibertsitate-aldizkarian eta ANCES Y EBN enpresen eta berrikuntzaren Europako zentroyen sare espainiarraren eta europarraren informazio-aldizkarietan.
- ▶ Sariari dagokion garaikurra.

OHARRA: *Ekintzaile/Txekintek/Barnetekin laguntza gauzatzeko epea sari hau banatzen denetik hurrengo ediziora bitartekoa izango da. Era berean, "Joxe Mari Korta" Zentroan espazioa eskatzeko aukera, saria eman eta gehienez 18 hilabete gehiagokoa izango da.*

HAUTAGAIEN BALORAZIOA

Aurkeztutako proiektuak ondoko erakunde laguntzaileetako adituen Batzorde Tekniko batek ebaluatuko ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua
- SPRI
- EHUko Gipuzkoako Campusa
- BIC GIPUZKOA BERRILAN.



Hala badagokio, Batzorde Teknikoan aurkeztutako proiektuen gaietako adituak sartzea baloratuko da.

Lehenengo fasean Batzorde Teknikoak ebaluatuko ditu aurkeztutako proiektuak, eta lehenengo fase horretan aukeratzeko diren proiektuek batzorde horren aurrean defendatu beharko dute bere hautagaitza.

Jarraian aipatzen diren alderdiok hartuko dira kontuan bereziki:

- ✓ Ekimena sustatzen duen taldea.
- ✓ EHU-ren medioz ezagupen eskaintza.
- ✓ Produktu / Zerbitzu / Prozesuaren berrikuntza maila.
- ✓ Merkaturatzeko aukerak eta jarduera-sektorearen interesgarritasuna.

DOKUMENTAZIOA ETA BESTE KONTZIDERAZIOAK

1.- "Inskribapen orria". Proiektua sustatzaile talde batek aurkeztu duenean, beren ordezkari izango den pertsona fisiko bat hautatu behar dute, sarituak aukeratzeko prozesuari dagozkion ondorenetarako.

2.- Proiektuaren gaineko justifikazio-txostena, sariaren antolatzaileek ezarritako ereduaren arabera. Aurkeztu beharreko dokumentazioak, gehienez ere, 25 folio izan beharko ditu.

Txostena aurkezteko formatua: kopia bat paperean eta kopia bat CD euskarrian.

3.- Laburpen exekutibo bat erantsiko da, gehienik ere bi orrialde dituen, euskaraz edo gaztelaniaz, proiektuaren balore nagusiak azpimarratuz.

4.- Ekimenaren sustatzaile/sustatzaileen Curriculum Vitae ere erantsiko da. Ikerketa talde batek sustatu eta bultzatutako proiektua izanez gero, talde horren ikerketa-ildo estrategikoei buruzko laburpen xume bat aurkeztu beharko da.

5.- Sariaren epaimahaiak informazioaren hedapena eskatuko du eta/edo egoki deritzon partaideekin elkarrizketa pertsonalak edukiko ditu.

Oharra: Egitasmoaren memoria egiteko **Entreprenari Programaren** web-orrietako gidoiak hartuko dira aintzat www.entreprenari.com. Proiektu askok ez dute edukiko galdekizun horretan planteaturiko galdera guztiei erantzuteko behar besteko heldutasun mailarik; ez da beraz beharrezkoa galdera guztiei erantzutea, informazio ziurra duten puntuei bakarrik baizik.



AURKEZPEN EPEA ETA LEKUA

Dokumentazio GUZTIA AURKEZTEKO Epaimahaiak jarritako epea honako data honetan amaituko da

2019ko urriaren 30

Sariari buruzko informazioa www.entreprenari.com web orrian eskugarri dago.

Sariari buruzko galderak hurrengo lekuan argitu daitezke:

ENTREPRENARI GUNEA- Aula BIC

Joxe Mari Korta zentroa

Tolosa etorbidea 72, 0. solairua, 20.018 Donostia- San Sebastian

☎ 943 015 473 / 943 000 999

Harremanetan jartzeko: Lorea Varona

E-maila: entreprenari@entreprenari.com, lorea@bicgipuzkoa.com

Saria eskuratu ahal izateko behar den dokumentazioa kartazal itxietan aurkeztuko da helbide hauetan:

ENTREPRENARI GUNEA- Aula BIC

Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza

Arriola Ibilbidea 2 (Julianategi)

20018 Donostia-San Sebastián

Harremanetan jartzeko: Agustin Erkizia

☎ 943 01 85 08

NOTAK:

Epaimahaikideek proiektu guztiak isilpean aztertuko dituzte.

Epaimahaia ez da aurkezten zaion dokumentazioaren egiazkotasunaren arduradun egiten. Iruzur kasuetan edo saria ematearen ondorenez beste batzuei egindako kalteengatik egoki diren ekintzak egiteko ahalmena izango du.

Hedabideei dagokienez, partehartzaileek hartzen duten konpromiso bakarra hauxe da: proiektuaren izenburu nagusia eta proiektua aurkeztu duen enpresaren edo bultzatzailearen izena hedatzea. Amaierara iritsi edo finalera iritsiko diren proiektuen kasuan, berriz, hedabideen arreta handiagoa jasoko dutenez bakoitzarekin erabakiko da hedatu nahi den informazio mailari dagokiona, beti ere aurrez esandakoa gainditu behar badu.